



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



LEHEN ATALA (1808-1930)

1. GAIA. Antzinako Erregimenaren krisialdia (1808-1814): Cadizko Gorteak eta 1812ko Konstituzioa.

TESTUAK:

1. Cadizko Konstituzioa (1812-03-19)
2. Persiarren Manifestua (1814-04-12)

2. GAIA. Estatu liberalaren eraikuntza eta finkapena (1834-1874).

TESTUAK:

3. Mendizabalen Desamortizazio Dekretua (1836-02-21)
4. Burdinbideen Lege Orokorra (1855-06-06)

3. GAIA. Foruak eta liberalismoa: Karlistadak eta foruak indargabetzeko prozesua (1833-1876).

TESTUAK:

5. 1839ko urriaren 25eko Legea
6. 1876ko uztailaren 21eko Legea

4. GAIA. Errestaurazioko sistema politikoa (1875-1923).

TESTUAK:

7. 1876ko Konstituzioa (1876-06-30)
8. Joaquín Costaren *Oligarquía y caciquismo* lanaren pasartea (1901)

5. GAIA. Euskal Herriko industrializazioa eta haren gizarte-ondorioak (1875-1923).

TESTUAK:

9. Federico Echevarriaren hitzaldia librekanbismoari eta protekzionismoari buruz (1893-12-09)
10. Vicente Blasco Ibáñez-en *El intruso* eleberriaren pasartea (1904)

6. GAIA. Langileen mugimendua eta nazionalismoa Euskal Herrian (1890-1923).

TESTUAK:

11. Euskeldun Batzokijaren estatutuak (1894)
12. *La Lucha de Clases* astekariko artikulua (1896-05-23)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



BIGARREN ATALA (1931-1985)

7. GAIA. Bigarren Errepublika: 1931ko Konstituzioa eta erreformak (1931-1936).

TESTUAK:

13. Clara Campoamor diputatuak Gorte Konstituziogileetan emandako hitzaldia (1931-09-01)
14. Fronte Popularraren programa (1936-01-16)

8. GAIA. Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila Euskal Herrian (1931-1939).

TESTUAK:

15. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (1936-10-04)
16. Bizkaian eta Gipuzkoan kontzertu ekonomikoak ezeztatzeke lege-dekretua (1937-06-23)

9. GAIA. Estatu frankistaren sorrera (1939-1959).

TESTUAK:

17. Erantzukizun politikoen legea (1939-02-09)
18. Nazio-intereseko industriak babesteko legea (1939-10-25)

10. GAIA. Diktadura frankistaren finkapena eta krisialdia (1959-1975).

TESTUAK:

19. Municheko Europako Mugimenduaren Kongresuan hartutako erabakia (1962-06-07/08)
20. Estatuaren Lege Organikoa (1967-01-11)

11. GAIA. Diktadura frankista Euskal Herrian (1939-1975).

TESTUAK:

21. Baionako Hitzarmena (1945-03-31)
22. Antonio Añoveros Bilboko gotzainaren sermoia (1974-02-24)

12. GAIA. Trantsizioa (1975-1982): 1978ko Konstituzioa eta 1979ko Gernikako Estatutua.

TESTUAK:

23. 1978ko Espainiako Konstituzioa (1978-12-29)
24. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (1979-12-18)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



2011-2012 IKASTURTEKO HISTORIAKO USPrako TESTUAK

LEHENENGO PARTERAKO TESTUAK (1808-1930)

1. TESTUA. CADIZKO KONSTITUZIOA (1812-03-19)

Fernando VII.a, Jainkoaren graziaz eta Espainiako monarkiaren konstituzioaz Espainiako errege denak eta, haren faltan eta gatibutasunean, Gorte Nagusiek eta bereziek izendatutako Erregeztako erregeordetzak, honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztioi jakinarazten dizue: Gorte beraiek honako hau agindu eta berretsi dutela:

1. art. Espainiako nazioa bi hemisferioetako espainiar guztien batasuna da.
3. art. Subiranotasuna nazioan dago eta, arrazoi beragatik, nazioari bakarrik dagokio funtsezko legeak ezartzeko eskubidea.
8. art. Espainiar ororen betebeharra da estatuko gastuetan bere ondasunen arabera laguntzea.
12. art. Espainiako erlijioa katoliko, apostoliko eta erromatarra da eta izango da, egiazkoa den bakarra. Nazioak lege jakintsu eta bidezkoekin babesten du eta beste edozein praktikatzeari debekatzen du.
14. art. Espainiako gobernuak monarkia moderatu heredagarria da.
15. art. Legeak egiteko ahalmena Gorteei eta erregei dute.
16. art. Erregei du legeak betearazteko ahalmena.
17. art. Auzi zibil eta kriminaletan legeak aplikatzeko ahalmena legeak ezarritako auzitegiei dute.
371. art. Espainiar guztiek dute euren ideia politikoak idatzi, inprimatu eta argitaratzeko eskubidea, argitalpenaren aurreko lizentzia, berrikuspen edo onarpenik gabe, legeak xedatutako mugapen eta erantzukizunen pean.

Cadizen, 1812ko martxoaren 19an.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



2. TESTUA. PERTSIARREN MANIFESTUA (1814-04-12)

JAUNA:

Antzinako pertsiarren ohitura zen erregea hil ondoren anarkiaz beteriko bost egun igarotzea, hilketa, lapurreta eta beste hainbat zorigaiztoren esperientziak ondorengoarekiko leialagoak izatera behartu zitzaten. Espainia BMri hala izateko ez zuen behar halako saiakuntzarik zure gatibutasunak iraun duen sei urteetan. BM arbasoen tronura itzulita ikusteaz pozten diren espainiarretatik, begirunezko adierazpen hau Espainiako ordezkari-izaerarekin sinatzen dutenak dira (...)

Monarkia absolutua (...) arrazoiaren eta adimenaren lana da: jainkoaren legearen, justiziaren eta estatuko funtsezko legeen mende dago: konkista-eskubidearen bitartez edo euren erregeak aukeratu zituzten lehen gizakien borondatezko menekotasunaren bitartez ezarri zen. Horregatik, subirano absolutuak ez du ahalmenik bere agintea arrazoirik gabe erabiltzeko (jainkoak berak ere eduki nahi izan ez zuen eskubidea); horregatik zen beharrezkoa botere subiranoa absolutua izatea, bere mendekoei denon interesekoa zaintzen duena agintzeko eta hori nahi ez dutenak obeditzera behartzeko (...).

Eskatu behar dugun erremedioa, gure botoak, eta gure probintzienak, paperean jarritz, Espainiako lege, foru, usadio eta ohituren arabera da. (...) Xede horrekin bil daitezela Gorteak handitasunez eta antzinakoak egin ziren bezala (...): bertan behera utz daitezela Konstituzioaren ondorioak eta Cadizen xedatutako dekretuak eta Gorte berriek kontuan har ditzatela haren deuseztasuna, injustizia eta desegokitasunak (...)

Madriren, 1814ko apirilaren 12an.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



3. TESTUA. MENDIZABALEN DESAMORTIZAZIO DEKRETUA (1836-02-21)

BM ERREGINA GOBERNADOREARI EMANDAKO AZALPENA

Andere: Nazioaren jabego bihurtu diren ondasunak saltzea ez da emandako hitza betetzea eta errenten produktuaren amortizazio berdinen bitartez zor nazionalari berme positiboa ematea soilik; zorion publikoaren iturri oparoa irekitzea da; hildako aberastasuna berpiztea da; industriako eta zirkulazioko kanaletako oztupoak kentzea da; herrialdeari bertako gauza guztiekiko maitasun natural eta sutua itsatea da; aberria zabaltzea eta aberriarekin bat egiteko lotura berri eta sendoak sortzea da; azken batean, ordenaren eta askatasunaren ikurra den Isabel II.aren tronu gorenarekin identifikatzea da. Ez da merkataritzako espekulazio hotza, ezta kreditu eragiketa ere (...); animazio, bizi eta zorioneko elementua da Espainiarako. Horrela azaldu badezaket, bere politika pizkunderako osagarria da.

Nazioak dagoeneko eskuratuta dituen ondasunen salmenta egiteko eta bere emaitza materialerako BMren onepen agurgarriaren pean jartzeko ohorea izango dudan dekretuak, zor publiko handiaren kopurua murrizteko onura sortu behar du eta beharrezkoa da bai bere joeran, bai bere helburuan eta bai emaitza hura lortzeko erabiliko dituen bitartekoetan, jabe familia oparoa sortzeko goi mailako ideian lotzea eta bat egitea eta haren gozamenak eta existentzia batez ere goi mailako instituzioen erabateko garaipenean bermatzea.

Gaceta de Madrid, 1836ko otsailak 21.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



4. TESTUA. BURDINBIDEEN LEGE OROKORRA (1855-06-06)

Isabel II.a (...) Espainiako Erregina: honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztioi jakinarazten dizue: Gorteek honako hau agindu dutela eta guk berretsi dugula:

4. artikulua. Zerbitzu orokorreko trenbideen eraikuntza Gobernuak egiaztatu ahal izango du eta, bestela, partikularrek edo konpainiek.

6. artikulua. Partikularrek edo konpainiek ezingo dute trenbiderik eraiki (...) dagokion emakida eskuratu ez badute aurretik.

8. artikulua. Zerbitzu orokorreko trenbideak eraikitzeko funts publikoen laguntza jaso daiteke: 1. Beraiekin obra jakin batzuk egikaritzuz; 2. Enpresei aldi jakin batzuetan inbertitutako kapitalaren zati bat emanaz (...); 3. Kapital horien truke gutxieneko interes edo interes finkoa bermatuz (...).

19. artikulua. Trenbideen eraikuntzan erabiltzen diren atzerriko kapitalak edo xede horretarako maileguak estatuaren babespean eta gerraren ondoriozko errepresalia, konfiskazio edo bahimenduetatik libre geratuko dira.

20. artikulua. Trenbide enpresa guztiei ematen zaizkie honako hauek: 1. Trenbideak hartuko dituen jabari publikoko lursail guztiak (...); 2. Auzotasuneko onura egur, larre eta gainerakoen aprobetxamendurako (...) enpresetako langileentzat eta lanetan erabiltzen diren garraioko animalien mantenturako; 3. Trenbidearen aldameneko lurretan (...) harrobiak irekitzeko ahalmena (...); 4. Bidesari eta garraio eskubideak (...) jasotzeko ahalmen eskusiboa; 5. Eraikuntzak irauten duen bitartean eta hamar urte geroago arte, (...) lehengaiek, (...), makinek, (...), egurrak, kokeak eta atzerritik inportatu behar den material finko eta mugikor guztiak ordaindu beharreko muga zergan adierazitako eskubideen baliokidea ordaindu beharra (...)

30. artikulua. Trenbideak honako baldintza hauen arabera eraikiko dira: 2. Trenbidearen zabalera metro bat eta 80 zentimetrokoa izango da (Gaztelako 6 oin eta 6 hazbete).

Aranjuezen, 1855eko ekainaren 3an . – Ni, Erregina.- Francisco de Luxan, Sustapen Ministroa.

Gaceta de Madrid, 1855eko ekainak 6.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5. TESTUA. 1839KO URRIAREN 25EKO LEGEA

Isabel II.a, jainkoaren graziaz eta Espainiako monarkiaren Konstituzioaz Espainiako errege denak eta, bere adingabetasunean, bere Ama Agurgarria den Maria Cristina de Borbon Erregina alargunak, Erresumako Erregina Gobernatzailerak, honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztioi jakinarazten dizue: Gorteeek honako hau agindu dutela eta Guk berretsi:

1. art. Euskal probintzietako eta Nafarroako foruak berresten dira, monarkiaren batasun konstituzionalari kalterik egin gabe.

2. art. Gobernuak, aukera izan bezain laster eta Euskal probintziei eta Nafarroari entzun ondoren, lehen aipatutako foruetan haien interesa aldarrikatzen duen nahitaezko aldaketa proposatuko dio Gorteei, nazioaren eta Monarkiaren Konstituzioaren interes orokorrarekin bat eginez eta, aldi baterako eta lehen adierazitako moduan eta zentzuan, sortu litezkeen zalantzak eta eragozpenak ebatziz eta Gorteei horren berri emanaz.

Nik, Erregina gobernatzailerak.- Erreginak eskuz sinatuta – Jauregian, 1839ko urriaren 25ean.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



6. TESTUA. 1876KO UZTAILAREN 21EKO LEGEA

Alfonso XII.a, jainkoaren graziaz Espainiako errege konstituzionala denak, honako hau ikusi eta ulertzen duzuen gutzior jakinarazten dizue: Gorteek honako hau agindu dutela eta guk berretsi dugula:

1. art. Legeak deitutakoan arma zerbitzura joateko eta norberaren ondasunen proportzioan estatuko gastuetan laguntzeko betebeharrak ezarri dizkie Konstituzioak espainiar gutzietei eta betebeharrak horiek, eskubide konstituzionalak hedatzen diren bezala, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako biztanle gutzietei hedatuko zaizkie, nazioko gainerako biztanleei bezalaxe.

2. artikulua. Aurreko artikuluan xedatutakoaren kariaz, aipatutako hiru probintziak behartuta daude (...), armadako soldadualdi arrunt eta berezien kasuan, Legeen arabera dagokien gizonezko kupoa aurkeztera.

3. artikulua. Era berean, (...) Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako probintziak behartuta daude estatuko aurrekontu orokorretan esleitutako kontribuzio, errenta eta zerga arrunt eta bereziak ordaintzera, dagokien proportzioan eta gastu publikoetarako erabiltzeko.

4. artikulua. Gobernuari baimena ematen zaio, dagokion egunean Gorteei berri emanaz, 1837ko irailaren 19ko eta 1841eko abuztuaren 16ko legeak eta urte bereko urriaren 29ko dekretua kontuan hartuz, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintzien onespenearekin eta egokitzat jotzen badu, lehengo foru araubidean eskatzen dituzten erreforma guztiak onartzeko, Euskal Herriko herrien ongizaterako nahiz nazioaren gobernu onerako eta segurtasunerako badira.

Jauregian, 1876ko uztailaren 21ean.- Ni, Errege.- Antonio Canovas del Castillo Ministro Kontseiluko Presidentea.

Gaceta de Madrid, 1876ko uztailak 25.



7. TESTUA. 1876KO KONSTITUZIOA (1876-06-30)

Alfonso XII.a, jainkoaren graziaz Espainiako errege konstituzionala denak, honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztioi jakinarazten dizue: gaur egun bildutako Erresumako Gorteekin batera eta haiekin bat etorritz, honako hau agindu eta berretsi dugula:

Espainiako Monarkiaren Konstituzioa

11. art. Erljio Katoliko, Apostoliko eta Erromatarra da estatukoa. Nazioak kultuari eta bere ministroei eutsi behar die.

Espainiako lurraldean inor ezingo da eragotzi ez bere iritzi erlijiosoengatik ez bere kultura praktikatzegatik, baldin eta kristau moralari zor zaion errespetua gordetzen bazaio.

Ez dira baimenduko, ordea, estatuko erlijioarenak ez diren jende aurreko beste zeremonia eta adierazpenak. (...)

13. art. Espainiar orok du eskubidea:

Bere iritzi eta ideiak askatasunez adierazteko, ahoz, idatziz, inprimaketaz edo antzeko beste prozedura batez baliatuz eta aurretiko zentsurari lotu gabe.

Bakean biltzeko.

Giza bizitzako xedeetarako elkartzeko (...).

18. art. Legeak egiteko ahalmena Gorteek eta Erregeak dute.

19. art. Gorteak ahalmen bereko bi gorputz legegilekidek osatzen dituzte: Senatuak eta Diputatuen Kongresuak.

20. art. Senatua norberaren eskubideko senatariek osatzen dute; Koroak izendatutako biziarteko senatariek; estatuko korporazioek eta zergapeko handiek hautatutako senatariek (...).

28. art. Legeak finkatzen duen metodoaren bitartez hautatu eta berrautatu ahal izango dira diputatuak (...).

50. art. Erregeak du legeak betearazteko ahalmena (...)

75. art. Monarkia osoan zehar kode berberak aginduko dute, zirkunstantzia jakin batzuen ondorioz legeak xedatzen dituzten aldaketei kalterik egin gabe. Epaiketa arrunt, zibil eta kriminaletan foru bakarra ezarriko da espainiar guztientzat (...)

Madriren, 1876ko ekainaren 30ean.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



8. TESTUA. JOAQUIN COSTAREN *OLIGARQUÍA Y CACIQUISMO* LANAREN PASARTEA (1901)

Honen bitartez, gobernu mota hau osatzen duten faktoreak eta bakoitzak gainerakoekiko okupatzen duen posizioa erabakitzen ditugu.

Hiru dira kanpoko osagai horiek: 1. Talde bakoitzeko oligarkak (primate deiturikoak), gizon itzaltsuak edo gailenak, euren "buruzagitza" osatzen dutenak eta, oro har, erdialdean bizi direnak; 2. Lehen, bigarren edo goragoko mailako jauntxoak, lurraldean sakabanatutakoak; 3. Komunikazio organo eta tresna lana egiten dien gobernadore zibila. Funtsean horixe da bere atsekabearen azpian amore emandako eta ahuldutako nazio osoari intziri eginarazten dion trikimailu guztia.

Oligarka eta jauntxoek osatzen dute klase gidari edo gobernatzaile deitzen dioguna eta 'alderditan' banatuta eta sailkatuta dagoena. Baina deitzen badiogu ere, ez da horrela; horrela balitz, nazioaren zati eta bere ordezkari organiko izango litzateke. Baina gorputz arrotza baino ez da, zergak ezarri eta kobratzeko, ministerioak, kapitaintzak, telegrafoak, trenbideak, bateriak eta gotorlekuak indarrean hartutako atzerritar talde bat izango litzatekeen bezala.

Hauteskundeetan (...), ez da herria bozkatzea faltsifikatu eta sistema galbidera eramaten duena, klase kontserbadoreak eta gobernatzaileak baizik. Horretarako, euren posizioaz, aberastasunaz eta masak zuzentzeko eman zitzaizkien aginteaz eta botereaz baliatzen dira.

Joaquin Costa, *Oligarquía y caciquismo como la forma actual de gobierno en España*, Madril, 1901.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



9. TESTUA. FEDERICO ECHEVARRIAREN HITZALDIA LIBREKANBISMOARI ETA PROTEKZIONISMOARI BURUZ (1893-12-09)

Ez, hemen gertatzen den gauza bakarra zera da, Espainiaren eta Alemaniaren arteko itun tamalgarriaren ondorioz, proiektua atzera botako dela, eta deseginik geldituko dela egungo aduana-zergen araubidea ezartzeko egindako lan handia. Eta jokabide horrek zoritxar handia ekarriko dio herrialdeari, dudarik gabe; ez bakarrik aurrekari zorigaiztoko bat ezarriko duelako, etorkizuneko zeinahi industria-ekimen hondatuko lukeena, baizik eta, orobat, zauri hilgarria eragingo liekeelako lantegiei; bai egungo muga-zergen araubidearen babesean altxatu direnei, halakoak baitira gehien-gehienak, bai lehendik altxatuak zirenetan egin diren erreforma eta zabaltze handiei. Eta industria-jarduera horren guztiaren heriotzak, ohar gaitzen, hauek guztiak harrapatuko lituzke: Labe Garaietan, galdaragintzako eta makinak egiteko instalazio berriak; altzairu-ekoizpena; Deustuko Lantegietan, altzairu moldekatuak eta trakzio-makinak eta -materiala egiteko saila; Aurreran, hodi-funtzio oso garrantzitsuak, eta altzairu-lanak; Zorrotzako tailerretan eta Miraballeskoetan, zubi, bagoi eta eraikinak egiteko lanak eta galdaragintza (...) eta beste asko eta asko, luze joko bailiguke orain denak aipatzeak. Ez aipatzeagatik, jaun-andreok, berebiziko garrantzia duten fabrika-proiektuak —izenik ezin dut eman—, 1982ko aduana-zergak jarraitzearen baitan baitago haiek gauzatzea edo ez.

Hain ondorio lazgarriak saihesteko, hainbesteko hondamena saihesteko, Bizkaia ez ezik Espainiako beste eskualde oso garrantzitsu batzuk ere hartuko bailituzke eta eragina izango bailuke nazio osoan, tinko eskatu behar diogu Gobernuari ez dadila araubidetik urrundu, ez dezala halako modu zalapartatsu eta gupidagabea suntsitu gaur egungo babes-sistema, eta, beraz, bazterrera utz dezala espainiar-alemaniar itun zentzugabe hori.

Merkataritza Itunen kontrako mitin-protesta, Bilbon, 1893ko abenduaren 9an. Bilbon, 1894.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



10. TESTUA: VICENTE BLASCO IBÁÑEZEN *EL INTRUSO* ELEBARRIAREN PASARTEA (1904)

“Peoien etxea” zen, meatze-mendietako aterpetxe ziztrina, eta jornalariak han bizi ziren, pilatuta. (...)

Arestik zulo hartan igarotako gauetan pentsatu zuen, tristuraz beteta. Peoiak abailduta iristen ziren, egun osoa ematen baitzuten barrenatzeko makinek ateratako blokeak apurtzen, bagonetak harriztarrez betetzen, mea-biltegiara eramaten eta mea-biltegitik ekartzen. Babarrunak, patatak eta bakailao edo urdail pixka bat pixka bat afalduta, gelaxka hartan egiten zuten lo, izerdiz edo euriz bustitako jantziak soinean zituztela; botak bakarrik erantzten zituzten; jaka ere bai, batzuetan. Eskuez uki zitekeen sabai haren azpian, airea ez zen mugitzen, eta ordu gutxi batzuk igaro ostean, ezin arnastuzkoa bilakatzen zen, hainbeste gorputzen lurrenak loditua eta zikinkeria-usainez josia. Kamainen tolesetan, egurrezko junturetan nahiz sabaiko zuloetan bizi ziren bizkarroiak ehizara ateratzen ziren, beroak suspertuta, eta nekeak eraginda lozorroan zeuden gorputz bizigabeekin anker jokatzeko zuten, iluntasunaren babesean. Gau ekaiztsuetan, zirrikitu eta arrailetatik sartu eta batetik bestera ibiltzen zen haizea, etxezuloa behera botatzeko zorian. Halakoetan, gorputz jantzi eta kirasdunak elkarren bila aritzen ziren, beroa lortu nahian. Izerdiak elkartu egiten ziren eta arnasak nahasi; zikinkeria anaiartekoa zen. (...)

Harrobia zen langile asaldatzaileen etsairik gogorrena. Lurpeko meazuloetako arriskuei aurre egiteko, maisutasuna beharrezkoa zen, hortaz, ez zen erraza hango langileen ordezkioak bilatzea, irakatsi egin behar baitzitzaien ofizioa. Baina Enkarterri emankorretan burdinak mendiak osatzen ditu: ustiaketa kanpoaldean egiten da; harria atera, jaso eta eraman, ez da besterik egin behar; zulatu eta apurtu, ereiteko lurretan bezalaxe. Goseak bultzatuta, etengabe iristen ziren peoiak, multzo handitan, eta gehiegikerien aurka protestaka lanpostua utzi zutenak ordezkatzeko zituzten, ahaleginik egin gabe. Gizonen etorrera etengabea eteten ez bazen, Enkarterrietako langileak behin eta berriz ordezkatzeko bazituzten, zaila zen lan hark merezi zituen eskubideak eskuratzea.

Vicente Blasco Ibáñez, *El intruso*, Valentzia, 1904.



11. TESTUA. EUSKELDUN BATZOKIJAREN ESTATUTUAK (1894)

1. artikulua: Euskeldun Batzokija izenarekin, (...) Bizkaiko Jaun Goikua eta Lagi-Zarra leman jasotako doktrinen jarraitzaile diren herritarren arteko batasun eta adiskidetasun loturak sortzea helburu duen aisiarako zentroa sortu zen Bilbo hirian.
2. artikulua: Behin Bizkaiko Elkarte Nagusia sortzen denean, Bizkai-Batzar deituko dena Arana eta Goiritar Sabinok idatzitako estatutuak izango dituen, Euskeldun Batzokija haren mende geratuko da (...).
3. artikulua: Jaungoikua. Bizkaia katolikoa, apostolikoa eta erromatarra izango da bere barruko bizitzako adierazpen guztietan eta gainerako herriekiko harremanetan.
4. artikulua: Lagizarra. Bizkaia askatasunez birsortuko da. Foru izeneko bere lege tradizioaletan jasotako funtsezkoena osotasunean berrezarriko du. Gure arbasoen usadio eta ohitura onak berrezarriko ditu. Erabat ez bada ere, gehien bat, euskal arrazako familiez osatuko da. Euskara izendatuko du hizkuntza ofizialtzat.
5. artikulua: Eta. Ordena erlijiosoaren eta politikoaren eta gauza jainkotiarren eta gizatiarren arteko harmonia perfektuaren eta adostasunaren gainean ezarriko da Bizkaia.
6. artikulua: Jaungoikua eta Lagizarra bereiztea. Ordena erlijiosoaren eta politikoaren, eklesiastikoaren eta zibilaren arteko bereizketa argi eta markatuaren gainean ezarriko da Bizkaia.
7. artikulua: Jaungoikua Lagizarraren aurretik jarriko da. Politikoak erlijiosoarekiko eta Estatuak Elizarekiko erabateko eta baldintza gabeko mendekotasunaren gainean ezarriko da Bizkaia.
8. artikulua: Bizkaia, bere arraza, bere hizkuntza, bere fedea, bere izaera eta bere ohiturak kontuan hartuta, Araba, Nafarroa Beherea, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoaren arreba izanik, sei herrialde horiekin elkartu edo konfederatuko da Euskalerrria izeneko (Euskeria) multzoa osatzeko, baina bere autonomia partikularra batere murriztu gabe.(...).

Bizkaitarra (Bilbo), 1894-05-24.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



12. TESTUA. *LA LUCHA DE CLASES* ASTEKARIKO ARTIKULUA (1896-05-23)

Bizkaiko Langileei

(...) Bizkaiko meatzeetako langileak maiatzaren 1ean bildu ziren Gallartako frontoian eta manifestazio zaratatsuak egin zituzten meatze eskualde hartako erregetxoek derrigorrezkotzat jotzen zituzten kuartel eta dendak mantentzearen aurka. Gainera, botere publikoei edo haien ordezkariak haiek berehala eta erabat desagerrarazteko eskatuko zien batzordea eratu zuten. (...)

Meatzeetako langileak greban altxatu ziren 1890ean, lanaldia murriztea eta derrigorrezko barrakoi eta dendak kentzea aldarrikatuz. (...)

Gaur egun, onerako edo txarrerako, 1890ean ezarritako lanaldiarekin jarraitzen da, baina derrigorrezko barrakoi eta dendei dagokienez, lehenengo grebaren aurreko egoeratik oso hurbil daude meatze zona guztian.

Bizkaian, legeak gutxietsiz eta mendeko izaera liberala murriztuz, nahitaezko baldintza da lanean onartua izateko, etxe ez higienikoetan bizitzea eta janariak, onak edo txarrak (ia beti txarrak eta eskandaluzko prezioetan), denda jakin batzuetan erostea.

Hori, gure iritziz, horrenbeste aldiz eskatzen den lan askatasunari egiten zaion eraso larria, osasun eta higie legeei egiten zaien iraina eta, batez ere, inongo gobernu kulturik onartu behar ez lukeen gizakiaren aurkako zapalkuntza da.

Baina Bizkaiko meatzeetako langileek, esklabotasun berri eta higuigarriaren ikur diren derrigorrezko kuartel eta dendak desagerrarazteko, grebarako legezko eskubidea aldarrikatuko dute, gobernuak eta agintariek benetako krimenak egiten dituzten kontzientziarik gabeko zapaltzaileen aseizintasunari muga jarri behar zaionik uste ez badute ere.

La Lucha de Clases (Bilbo), 1896-05-23.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



BIGARREN PARTERAKO TESTUAK (1931-1982)

13. TESTUA: CLARA CAMPOAMOR DIPUTATUAK GORTE KONSTITUZIOGILEETAN EMANDAKO HITZALDIA (1931-09-01)

Utzi iezaiozue emakumeari den bezalakoa izaten, hura ezagutu eta epaitzeko; errespetatu ezazue gizaki izateagatik duen eskubidea; (...) eta eskubide konstituziogilea, herri zibilizatuen arau juridiko gisa, gero eta hurbilago badago askatasunaren kontzeptutik, ez ezaguzue arrazoitzat aipatu izaki desberdinen arteko desberdintasunaren printzipio aristoteliko zaharkitua (...). Utzi iezaiozue emakumeari Zuzenbidean aritzen, hasieran hanka-sartzeak eta zalantzak izanda ere, horrela bakarrik heziko baita hartan.

(...) Konstituzio honen garaia eta espiritua kontuan hartuta, oso poztu nau mundu zibilizatuan orain arteko konstituziorik onena, libreena eta aurreratuena izango dela pentsatzeak. Gainera, nire ustez, behin-behineko Gobernuaren dekretuak monarkiako hogeitau mendek aitortu ez ziotena aitortuko dio emakumeari, Errepublikari ezarri eta hamabost egunean. Uste dut hau izango dela emakumearen [sufragio] eskubidea onartuko duen lehen latindar herrialdea; lehen aldiz entzungo da latindar ganbera batean emakumearen ahotsa, emakumea bera bezain xumea, baina egiaren aurak ekarri nahi dizkiguna; eta harro-harro sentitzen naiz, nire Espainia izango baita emakumearen askatasunaren bandera jasoko duen herrialdea (...). Eta honela diotsuet, legegizonak: (...) ez ezazue onartu beste latindar nazio batek, datozen egunetan, guk baino lehenago ezartzea bere Konstituzioaren buruan emakumearen askatasuna, zuen kidearen askatasuna.

Espainiako Errepublikaren Gorte Konstituziogileen saioen egunkaria; 1931ko irailaren 1eko saioa.



14. TESTUA. FRONTE POPULARRAREN PROGRAMA (1936-01-16)

Alderdiak (...) berehala izango den hauteskunde lehian euren indarren koalizioari oinarri eta kartel gisa balioko dien plan politiko komuna adostera iritsi dira. (...) Koalizioan elkartutako alderdiek honako konpromiso hauek hartu dituzte:

Lege baten bitartez, 1933ko azaroaz geroztik egindako delitu politiko eta sozialen amnistia zabala ematera, auzitegiek halakotzat jo ez bazituzten ere (...)

Askatasunaren eta justiziaren defentsan, estatu errepublikanoaren eta bere erregimen konstituziogilearen funtsezko misio gisa, koalizioan elkartutako alderdiek Konstituzioaren agintea berrezarriko dute. (...)

Errepublikanoek ez dute onartzen lurra nazionalizatu eta nekazariei emateko printzipioa, alderdi sozialistako ordezkariak eskatutakoa. Baina komenigarritzat jotzen dituzte proposatzen diren hainbat neurri, esaterako, nekazarien berrerospena (...)

Alderdi errepublikanoek ez dituzte onartzen alderdi langileek proposatutako banka nazionalizatzeko neurriak; baina, bestalde, onartzen dute gure banka sistemak hainbat hobekuntza behar dituela (...).

Alderdi errepublikanoek ulertzen duten Errepublika ez da klaseen arrazoi sozial edo ekonomikoek zuzendutako errepublika, interes publiko eta aurrerapen sozialeko arrazoiek bultzatutako askatasun demokratikoko erregimena baizik. Baina arrazoi horrexegatik, politika errepublikanoak produkzioaren interes orokorrak uzten duen muga goreneraino igo behar lituzke langileen baldintza moralak eta materialak, muga horretatik kanpo pribilegio sozial eta ekonomiko guztien gainetik egon behar duten sakrifizioei begiratu gabe. Alderdi errepublikanoek ez dute onartzen alderdi sozialistaren ordezkariak eskatutako langileen kontrola.

El Socialista (Madril), 1936ko urtarrilak 16.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



15. TESTUA. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUA (1936-10-04)

Diputatuen Kongresuak honako LEGE hau agindu eta berretsi du:

1. art. Errepublikako Konstituzioaren eta Estatutu honen arabera, Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak eskualde autonomoa osatzen dute espainiar estatuaren barruan eta “Euskal Herria” izena hartu du. Bere lurraldea aipatutako probintziak gaur egun osatzen dutena izango da eta horiek, aldi berean, modu autonomoan gobernatuko dira (...). Euskara, gaztelania bezala, Euskal Herriko hizkuntza ofiziala izango da (...).

5. art. Euskal Herriari dagokio bere lurralde autonomoaren barruko babes juridikorako eta ordena publikoa mantentzeko polizia erregimena ezartzea.

10. art. Euskal Herriaren botereak herrian sortzen dira eta Errepublikako Konstituzioaren eta Estatutu honen arabera erabiliko dituzte berak erabakitzen dituen organoek honako mugapen hauen arabera:

- a) Eskualdeko organo legegilea (...) sufragio unibertsal, berdin, zuzen eta sekretu bidez (...) hautatuko da.
- b) Organo betearazleak organo legegilearen konfiantza izan behar du eta presidentea izango da eskualdearen ordezkaria Errepublikarekiko harremanetarako (...).

Lehen xedapen iragankorra. Gerra zibilak eragindako ez ohiko baldintzek irauten duten bitartean, Euskal Herrian behin-behineko Gobernuak aginduko du Estatutu honetan xedatutako eskumen guztiekin. Behin-behineko Gobernu horretako lehendakaria Estatutua promulgatu ondorengo zortzi egunen barruan izendatuko dute euskal udalak osatzen dituzten eta euren botoa askatasunez eman dezaketen herriak aukeratutako zinegotziek (...). Behin-behineko Gobernuko lehendakariaren hautaketa Bizkaiko gobernadore zibilak egiaztatuko du (...). Horrela hautatutako lehendakariak behin-behineko Gobernuko kideak izendatuko ditu eta horiek ez dira bost baino gutxiago izango (...)

Gaceta de Madrid, 281. alea, 1936ko urriaren 7koa.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 1. alea, 1936ko urriaren 9koa.



16. TESTUA. BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN KONTZERTU EKONOMIKOAK EZEZTATZEKO LEGE-DECRETUA (1937-06-23)

Euskal herriko probintzietan ekonomia arloan indarrean dagoen sistema itunduak pribilegio nabarmena du erregimen arruntari lotutako gainerako lurralde nazionalarekiko, baina ez probintzia horietako Aldundiek arlo horretan duten autonomia zabalagatik bakarrik, probintzia horietako zergapekoak karga publikoak altxatzeko egin behar duten ahalegin txikiagoagatik baizik (...).

Kontzertua mesedegarri izan zuten askok ahaztu egin zuten botere publikoak eman zien zarrastelkeria eta, Gipuzkoan eta Bizkaian, armak hartu zituzten uztailaren 17an abiarazitako Mugimendu Nazionalaren aurka eta traizioz erantzun zioten salbuespenezko eskuzabaltasunari (...).

Zerga eta administrazio erregimenaren berezitasunak bere izaera nazionala eta Aberriaren patu komunarekiko atxikipenaren suhartasuna gero eta gehiago goraiatzeko balio izan du hainbat probintzietan, esaterako, Nafarroa txit leialean. Beste batzuetan, aldiz, Espainiaren aurkako politika baldarra egiteko balio izan du eta zirkunstantzia horrek (...), kalte larriak eragiteko tresna gisa erabili zuten sistemari amaiera jartzera behartzen du.

Gogoeta beraien arabera, Arabako probintzian gaur egun indarrean dagoen sistemak jarraitu egin behar du (...)

(..) Horren kariaz, honako hau XEDATZEN DUT:

Lehen artikulua. Datorren uztailaren batetik aurrera, estatuko kontribuzio, errenta eta zerga arrunt eta berezi guztien kudeaketa eta bilketa Gipuzkoa eta Bizkaia probintzietan egingo da, indarrean dagoen erregimen erkidearen arabera (...). Beraz, indargabetuta geratuko da lehen adierazitako datatik aurrera ekonomia arloan Aldundiekin itundutako eta gaur egun indarrean zegoen erregimena.

Burgosen, mila bederatzehun eta hogeita hamazazpiko ekainaren hogeita hiruan.

Francisco Franco

Boletín Oficial del Estado, 1937ko ekainaren 24koa.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



17. TESTUA: ERANTZUKIZUN POLITIKOEN LEGEA (1939-09-02)

(...) Gobernuak (...) uste du unea iritsi dela Erantzukizun Politikoaren Lege bat emateko, beren egite edo ez-egite larriekin matxinada gorria gorpuzten lagundu zutenek alde horretatik dituzten erruak kitatzeko balioko duena (...)

Halako zigorrak ezartzeaz arduratuko diren auzitegietako kideak Armadako, Magistraturako eta Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.-eko ordezkariak izango dira (...)

1. art. Erantzule politiko deklaratzeko dira 1934ko urriaren 1etik 1936ko uztailaren 18ra bitarte Espainiari jasanarazi zitzaion era guztietako asaldura eragiten edo areagotzen lagundu zuten pertsona fisikoak nahiz pertsona juridikoak, eta orobat bigarren data horretatik aurrera, beren egintza batzuekin edo gelditasun larriarekin, Mugimendu Nazionalaren kontra aritu direnak edo daudenak.

2. art. Aurreko deklarazioaren ondorioz (...) legez kanpo gelditzen dira 1936ko otsailaren 16an hauteskunde-deia egin zenez geroztik Fronte Popularra osatu duten alderdi edo talde politiko eta sozial guztiak, eta orobat hari aliatu edo atxiki zaizkion alderdi eta taldeak eta Mugimendu Nazionalaren Garaipenari kontra egin dioten guztiak.

3. art. Legez kanpo deklaraturako alderdi, talde eta erakundeek osotara galduko dituzte era guztietako eskubideak eta ondasun guztiak

Boletín Oficial del Estado, 1939ko otsailaren 13a.



18. TESTUA: NAZIO-INTERESEKO INDUSTRIAK BABESTEKO LEGEA (1939-10-25)

Espainiak bere historiako krisirik larriena gainditu behar izan zueneko Gurutzada loriatsuan, agerian gelditu zen nazioaren bizitzarako zeinen garrantzi handikoa den gerrarako behar dituen industriak eta ezinbesteko lehengaiak bere lurraldean izatea.

Gure ekonomia dagoen egoeran egonik, bestalde, beharrezko da ahaleginak egitea Espainia produktu arrotzen inportaziotik askatzeko, halakoak gure nazioaren lurraldean ekoitzi edo fabrikatu daitezkeenean.

Gaur arte ez denez lortu, barne merkatuak aukera emanik ere, ekimen partikularren bidez premia horiek asetzea, beharrezko ikusten da nazioaren interes bereziko diren halako industriak ezartzeko laguntza ematea, funtzionamendu normala ziurtatuko dieten bermeak eta onurak eskainiz.

Hori dela eta, XEDATZEN DUT:

2. art. Defentsaren edo nazio-ekonomiaren premien ondorioz beharrezko ikusten bada Espainian industria bat ezartzea, eta hartarako ekimen partikularra sustatu beharra baldin badago, “nazio-intereseko” deklaratu ahal izango da industria hori, dagozkion txosten tekniko eta ekonomikoak egin ondoren.

2. art. “Nazio-intereseko” deklaratutakoan, industria batek honako onura hauetaz gozatu ahal izango du, hamabost urterainoko epean:

- a) Industria hori jartzeko behar diren lurak nahitaez desjabetzeko ahalmena.
- b) Zergak murriztea, % 50eraino.
- c) Estatuak urteko gutxieneko etekin bat bermatzea, % 4rainokoa, haren kapitalari. Atal honen arabera bermatutako kapitala ezin izango da, guztira, sei milioi pezeta baino gehiago.
- d) Aduana-eskubideetan beherapena egitea instalazioetarako makineria eta lanabesak inportatzean, Espainian fabrikatzen ez direnean.

2. art. Onura horien trukean, estatuak esku hartuko du industria ezartzean eta haren martxan, kontu-hartzaile bat eta kontseilari-ordezkeri bat izendatuta, etete-ahalmendunak; aukera izango du, orobat, instalazioak bere teknikariek balioesteko.

6. art. Enpresa emakidadunak, sozietatearen egonkortasuna eta martxa ekonomikoa ziurtatutakoan, etekinei uko egin ahal izango die, eta hirugarren artikuluan adierazitako esku-hartzetik libre geldituko da.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



19. TESTUA: EUROPAKO MUGIMENDUAREN KONGRESUAK 118 ORDEZKARI ESPAINIARREN PROPOSAMENEZ MUNICHEN HARTUTAKO ERABAKIA (1962-06-07/08)

Europar Mugimenduaren Kongresuak, Munichen 1962ko ekainaren 7an eta 8an bilduta, iritzi dio edozein herrialdek Europan sartu nahi badu, izan atxikita edo izan elkartze bidez, herrialde horrek erakunde demokratikoak izan beharko dituela; horrek, Espainiaren kasuan, Gizakiaren Eskubideei buruzko Europar Konbentzioaren eta Europako Gizarte Gutunaren arabera, hau esan nahi du:

1. Benetan ordezkari bidezkoak eta demokratikoak diren erakundeak eratzea, eta erakunde horiek bermatzea gobernu herritarren onspenean oinarritzen dela.
2. Pertsonen eskubide guztiak egiazki bermatzea; bereziki, norberaren askatasunari eta adierazpen-askatasunari buruzkoak, gobernuaren zentsurarik gabe.
3. Erkidego naturalen izaera berezia aitortzea.
4. Oinarri demokratikoen gainean, askatasun sindikalak baliatzea, eta langileek beren oinarrizko eskubideen defentsa egitea; besteak beste, greba-eskubidearen bidez.
5. Iritzi-korronteak eta alderdi politikoak antolatzeak aukera izatea, oposizioaren eskubideak aitortuta.

Kongresuak itxaropen sendoa du aurreko oinarri horien arabera eboluzioak aukera emango duela Espainia Europan sartzeko, haren funtsezko osagaia baita; eta adierazgarritzat dauka Kongresuan partaide izan diren espainiar ordezkari guztiek adierazi izana seguru daudela espainiar ordezkari gehienek nahi dutela eboluzio hori zuhurtzia politikoaren arauen arabera egitea, egoerak aukera ematen duen bezainbesteko azkartasunarekin, denen zintzotasunarekin eta eboluzio-prozesuaren aurretik, prozesuan bertan nahiz prozesuaren ondoren bortxakeria aktibo nahiz pasiboari uko egiteko konpromisoarekin”.

Munich (Alemaniako Errepublika Federala), 1962ko ekainaren 8a.



20. TESTUA. ESTATUAREN LEGE ORGANIKOA (1967-01-11)

Orain arte promulgatutako legeek erakunde antolamenduek eskatzen dituzten gai gehienak hartzen dituzte(...). Iritsi da estatu nazionala erakundetzea amaitzeko une egokia (...). Horren kariaz, (...), honako hau xedatzen dut:

1. art. I. Espainiar estatua, erresuma gisa eraturakoa, erkidego nazionalaren erakunde gorena da.
2. art. I. Subiranotasun nazionala bakarra eta zatiezina da eta ezin da ez ordezkatu ez laga.
- II. Espainiar estatuaren erakunde sistema botere batasunaren eta funtzio koordinazioaren printzipioetan oinarritzen da.
3. art. Honako hauek dira estatuaren oinarritzko xedeak: Espainiako gizonen arteko eta lurren arteko batasunaren defentsa; nazioaren osotasuna, independentzia eta segurtasuna mantentzea (...). Hori guztia Mugimendu Nazionalaren Printzipioen inspirazioarekin eta haiekiko leialtasun zorrotzenarekin (...), bere izaeraz, iraunkorrak eta aldaezinak direnak.
6. art. Estatuburuak da nazioaren ordezkari gorena; berak erabiltzen du botere politiko eta administratibo gorena; Mugimenduaren Buruzagitza Nazionala du eta Mugimenduaren eta Erresumako gainerako funtsezko legeen printzipioak zehaztasunez betetzen direla zaintzen du (...); legeak promulgatu eta berresten ditu (...); lehor, itsaso eta aireko armaden gaineko aginte gorena du; (...); bere izenean administratzen da justizia; grazia eskubidea erabiltzen du; enpleguak, kargu publikoak eta ohoreak ematen ditu, legeek xedatutakoaren arabera; ordezkari diplomatikoak kreditatu eta hartzen ditu eta Erresumako Funtsezko Legeen arabera dagozkion ekintza guztiak egiten ditu (...)
14. art. I. Gobernuburuak espainiarra izan behar du eta estatuburuak izendatuko du Erresumako Kontseiluak proposatutako hirukotetik hautatuta.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



21. TESTUA: BAIONAKO HITZARMENA (1945-03-31)

Euzkadik Frantzia dituen erakunde politiko eta sindikalek, Euzkadiko Gobernuarekin batuta Francok bideratutako mugimendu iraultzailearen aurka heroikoki borrokatu zutenek, honako hau adierazi nahi dute, etorkizuneko berezitasun ideologikoei uko egin gabe:

1. Altxamendu militarra zela-eta, indarrak batu zituztela 1936ko uztailaren 18an abiarazitako ekintza gauzatzeko, eta batura hori berretsi egin dutela. Batura hura era organikoan islatuta geratu zen 1936ko urriaren 7an, Euzkadiko Gobernu osatu zenean, Errepublikako Gorteek bozkaturako Estatutuaren arabera. Gobernu haren lehendakaria José Antonio Aguirre jaun txit gorena da.
2. Gobernu horretan konfiantza osoa dutela eta beharrezko laguntza eskainiko diotela, euskal herriaren bidezko ordezkari gisa, haien helburu politiko eta sozialak jasotzen baditu, betiere.
3. Normaltasun demokratikoa berriz ezarritakoan, euskal herriak askatasunez adieraziko dituen nahiak errespetatu eta defendatuko dituztela.
4. Euzkadiko Gobernuak egin beharreko lana aholkatu, prestatu eta babestuko duen erakunde aholku-emailea eratuko dutela, gerraren ondorioz euskal lurraldetik kanporatu dituen demokraziaren aurkako erregimena desagertzean. Erakunde horren funtzionamendua araudi egoki baten bidez arautuko da.
5. Penintsulako herri, alderdi politiko eta erakunde sindikal guztiekin batera borrokan jarraituko dutela, Francoren gobernuaren, Falangearen eta beste edozein diktadura-erregimenaren aurka, baita demokraziaren kontrako eta monarkiaren aldeko beste mugimendu guztien aurka ere.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

22. TESTUA: ANTONIO AÑOVEROS BILBOKO GOTZAINAREN SERMOIA (1974-02-24)

Euskal Herriko biztanleen bizikidetzari eta gure elizbarrutiari kalte gehien egiten dien arazoetako bat euskal gatazka izenez ezaguna da. Zertan datza arazo hori?

Oinarri-oinarrizkoa bakarrik aipatuta, honela azal daiteke: zenbait herritarrek, bakoitzak bere ñabardurekin bada ere, euskal herria zapalduta dagoela baieztatzen dute eta haren eskubideak aitortu daitezkeen eskatzen dute; beste herritar batzuek, ordea, errefusatu egiten dute salaketa hori, haserre, eta egoera aldatzeko saio guztiak gizarte-sistemaren aurkako eraso larria direla aldarrikatzen dute. (...)

Euskal herriak berariazko ezaugarri kultural eta espiritualak ditu, eta horien artetik nabarmentzekoa da milaka urte dauzkan hizkuntza. Ezaugarri berezi horiek berariazko nortasuna ematen diote herriari, egun Espainiako estatua osatzen duten herrien artean.

Espainiako estatuko gainerako herriak bezalaxe, euskal herriak ere eskubide osoa du berezko nortasuna mantentzeko, bere ondare espirituala lantzeko eta garatzeko, inguruko herriekiko truke osasungarriari kalterik egin gabe, bidezko askatasuna aitortuko dion antolamendu soziopolitiko baten barruan.

Baina, egungo egoeran, euskal herriak eskubide horretaz gozatzeko oztopo latzak ditu. Euskararen erabilera mugatua dago, nabarmen, maila guztietako irakaskuntzan eta komunikabideetan (prentsa, irratia, telebista). Adierazpen kulturalak ere bereizketarik gabe kontrolatzen dituzte.

Elizbarrutiaren egoera zehatz honetan, Kristoren salbamena iragartzeko eta gogora ekartzeko, Elizak aholkua eta adorea eman behar ditu, behar bezala aldatzeko (...) gure herriko egoerak (...).

Antonio Añoveros, “El cristianismo, mensaje de salvación para los pueblos”, 1974ko otsailaren 24an Bizkaiko elizetan irakurritako sermoia.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



23. TESTUA. 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (1978-12-29)

Juan Carlos I.a Espainiako erregeak honako hau ikusi eta ulertzen duten guztiei honako hau jakinarazten die: Gortek honako konstituzio hau onartu dutela eta espainiar herriak berretsi egin duela:

1. art. Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa osatzen du eta askatasuna, justizia, berdintasuna eta politika aniztasuna aldarrikatzen ditu bere antolamendu juridikoaren goi mailako balio gisa.

2. Subiranotasun nazionala espainiar herriak du eta bertan dute jatorria estatuaren botereek.

3. Espainiar estatuaren forma politikoa parlamentuzko monarkia da.

2. art. Konstituzioa espainiar guztien aberri erkide eta zatiezina den Espainiaren batasun zatiezinean oinarritzen da eta osatzen duten nazionalitate eta eskualdeen autonomia eskubidea eta haien guztien arteko solidaritatea aitortu eta bermatzen du.

66. art. 1. Gorte Nagusiek ordezkatzten dute espainiar herria eta Diputatuen Kongresuak eta Senatuak osatzen dute.

98. art. 1. Presidenteak, presidenteordeek, baldin badira, ministroek eta Legeak xedatzen dituen gainerako kideek osatzen dute Gobernua.

117. art. 1. Justiziak herrian du jatorria eta botere judiziala osatzen duten epaile eta magistratuek administratzen dute erregearen izenean. Epaile eta magistratuak independenteak, ezin kenduzkoak eta arduratsuak dira eta Legearen mende bakarrik daude.

143. art. 1. Konstituzioaren 2. artikuluan onartutako autonomia eskubidea erabiliz, ezaugarri historiko, kultural eta ekonomiko erkideak dituzten probintzia mugakideek (...) autogobernua izan dezakete eta Autonomia Erkidegotan eratu daitezke, titulu honetan eta dagozkien estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK. Lehena. Konstituzioak foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Foru erregimen horren eguneratze orokorra Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuen esparruan egingo da, egitekotan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. 2. Indarrean egon bazitekeen ere, behin betiko indargabetutzat jotzen da 1839ko urriaren 25eko legea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiari eragin diezaikeen guztiari dagokionez. Era berean, behin betiko indargabetutzat jotzen da 1876ko uztailaren 21eko legea.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Gortek onartutakoa 1978ko urriaren 31n. Erreferenduma abenduaren 6an.

Boletín Oficial del Estado, 1978ko abenduaren 29.



24. TESTUA. EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUA (1979-12-18)

Juan Carlos I.a Espainiako erregeak honako hau ikusi eta ulertzen duten guztiei honako hau jakinarazten die: Gorte Nagusiek organiko izaerarekin onartu dutela honako lege hau eta nik berretsi egiten dudala:

1. art. Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazpen gisa eta bere autogobernua lortzeko, Autonomia Erkidego gisa eratu da espainiar estatuaren barruan, Euskadi edo Euskal Herria izenarekin, eta Konstituzioarekin eta bere oinarritzko erakunde araua den Estatutu honekin bat etorritz.

2. art. 1. Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak, eta baita Nafarroak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko kide izateko eskubidea dute.

2. Euskal Autonomia Erkidegoa Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia probintzien gaur egungo mugekin bat datozen Lurralde Historikoen osatuko dute eta baita Nafarroak ere, bertan sartzea erabakitzen badu (...).

3. art. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko bakoitzak bere antolamenduari eta autogobernurako erakunde pribatiboei eutsi diezaiekete edo, bere kasuan, berrezarri eta eguneratu ditzakete.

6. art. 1. Euskara Euskal Herriaren hizkuntza propioa da eta, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin. Gainera, Euskadiko biztanle guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

17. art. 1. (...) Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokie (...) lurralde autonomoaren barruan pertsonak eta ondasunak babesteko eta ordena publikorako Polizia autonomoaren erregimena antolatzea. Estatuko Segurtasun Indar eta Gorputzak arduratuko dira Autonomia Erkidegoaz kanpoko eta gaindiko polizia zerbitzuez.

XEDAPEN GEHIGARRIA. Estatutu honetan xedatutako autonomia erregimena onartzeak ez du esan nahi Euskal Herriak uko egiten dienik historiaren kariaz legozkiokeen eskubideei, antolamendu juridikoak xedatutakoaren arabera eguneratu ahal izango direnei.

Madrilgo Errege Jauregian, mila bederatzehun eta hirurogeita hemeretzi abenduaren hemezortzian.

Adolfo Suarez Gonzalez gobernuburua.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



PRIMERA PARTE (1808-1930)

TEMA 1. Crisis del Antiguo Régimen (1808-1814): las Cortes de Cádiz y la Constitución de 1812.

TEXTOS:

1. Constitución de Cádiz (19-03-1812)
2. Manifiesto de los Persas (12-04-1814)

TEMA 2. Construcción y consolidación del Estado liberal (1834-1874).

TEXTOS:

3. Decreto de Desamortización de Mendizábal (21-02-1836)
4. Ley General de Ferrocarriles (6-06-1855)

TEMA 3. Fueros y liberalismo: las guerras carlistas y la cuestión foral (1833-1876).

TEXTOS:

5. Ley de 25 de octubre de 1839
6. Ley de 21 de julio de 1876

TEMA 4. El sistema político de la Restauración (1875-1923).

TEXTOS:

7. Constitución de 1876 (30-06-1876)
8. Fragmento de la obra *Oligarquía y caciquismo* de Joaquín Costa (1901)

TEMA 5. La industrialización en el País Vasco y sus consecuencias sociales (1875-1923).

TEXTOS:

9. Discurso de Federico Echevarria sobre el librecambismo y el proteccionismo (9-12-1893)
10. Fragmento de la novela *El intruso* de Vicente Blasco Ibáñez (1904)

TEMA 6. El movimiento obrero y el nacionalismo en el País Vasco (1890-1923).

TEXTOS:

11. Estatutos del Euskeldun Batzokija (1894)
12. Artículo del semanario *La Lucha de Clases* (23-05-1896)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



SEGUNDA PARTE (1931-1982)

TEMA 7. La II República: Constitución de 1931 y reformas (1931-1936).

TEXTOS:

13. Discurso de la diputada Clara Campoamor en las Cortes Constituyentes (1-09-1931)
14. Programa del Frente Popular (16-01-1936)

TEMA 8. La II República y la Guerra Civil en el País Vasco (1931-1939).

TEXTOS:

15. Estatuto de Autonomía del País Vasco (4-10-1936)
16. Decreto-ley de abolición de los Concierdos Económicos en Bizkaia y Gipuzkoa (23-06-1937)

TEMA 9. La creación del Estado franquista (1939-1959).

TEXTOS:

17. Ley de Responsabilidades Políticas (9-02-1939)
18. Ley de protección de las industrias de interés nacional (25-10-1939)

TEMA 10. Consolidación y crisis de la Dictadura franquista (1959-1975).

TEXTOS:

19. Resolución aprobada en el Congreso del Movimiento Europeo de Munich (7/8-06-1962)
20. Ley Orgánica del Estado (11-01-1967)

TEMA 11. La Dictadura franquista en el País Vasco (1939-1975).

TEXTOS:

21. Pacto de Bayona (31-03-1945)
22. Homilía del obispo de Bilbao Antonio Añoveros (24-02-1974)

TEMA 12. La Transición (1975-1982): la Constitución de 1978 y el Estatuto de Gernika de 1979.

TEXTOS:

23. Constitución española de 1978 (29-12-1978)
24. Estatuto de Autonomía del País Vasco (18-12-1979)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



TEXTOS EN CASTELLANO PARA LA PAU DE HISTORIA DEL CURSO 2011-2012

TEXTOS PARA LA PRIMERA PARTE (1808-1930)

TEXTO 1: CONSTITUCIÓN DE CÁDIZ (19-03-1812)

Don Fernando VII, por la gracia de Dios y la Constitución de la Monarquía española, Rey de las Españas, y en su ausencia y cautividad la Regencia del Reino, nombrada por las Cortes generales y extraordinarias, a todos los que la presente vieren y entendieren, sabed: Que las mismas Cortes han decretado y sancionado lo siguiente:

Art. 1. La Nación española es la reunión de todos los españoles de ambos hemisferios.

Art. 3. La soberanía reside esencialmente en la Nación y por lo mismo pertenece a ésta exclusivamente el derecho de establecer sus leyes fundamentales.

